Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko apirilaren 5a, ostirala — 66 — Viernes, a 5 de abril de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

2024ko urtarrilaren 25ean egindako ohiko osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea ordenantza honi:

— Kirol Departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoen ordenantza

Jendaurrean jartzeko epea amaitu da, alegaziorik egon gabe. Hori horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, behin betiko onartuta geratutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

*Aplikatzekoa den legeria:* uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena (46. artikulua).

Zarautz, 2024ko martxoaren 20a.—Xabier Txurruka, alkatea.
(2096)

*Kirol Departamentuko Dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoen ordenantza.*

### ZIOEN AZALPENA

Zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko modernoan ukaezina da dirulaguntzek duten garrantzia, eta beldurrik gabe esan daiteke edozein administrazioren politika sozial eta ekonomikoan erabakigarria den tresna baten aurrean gaudela.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluak ematen dizkion lankidetza-eskumenak dituen lurralde-administrazio gisa, Zarauzko Udalean garrantzi handia du dirulaguntzei buruzko jarduerak.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2023 Lege Orokorrak 17.2. artikuluan esaten du toki-korporazioen dirulaguntzen oinarri arautzaileak aurrekontua gauzatzeko arauen esparruan onartu beharko direla, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate desberdinetarako berariazko ordenantza baten bidez.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorreko jokabide zehatz batzuk sustatzeko teknika bat dira, eta, baita, Administrazio Publikoaren eta partikularren arteko lankidetza-prozedura bat, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 25 de enero de 2024, acordó aprobar inicialmente la modificación de la siguiente Ordenanza:

— Ordenanza de las bases específicas para el otorgamiento de subvenciones del Departamento de Deportes

Transcurrido el periodo de información pública sin que se haya presentado ninguna alegación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto que ha quedado aprobado definitivamente.

Contra el acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

*Legislación aplicable:* artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Zarautz, a 20 de marzo de 2024.—El alcalde, Xabier Txurruka.
(2096)

*Ordenanza de las bases específicas para el otorgamiento de subvenciones del Departamento de Deportes.*

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En el moderno estado social y democrático de derecho es incuestionable la importancia que tienen las subvenciones, hasta el punto que puede afirmarse que estamos delante de un instrumento decisivo en la política social y económica de cualquier administración.

En el Ayuntamiento de Zarautz, como administración territorial que tiene las competencias cooperadoras que le atribuye el artículo 25 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la actividad en lo referente a subvenciones tiene una capital importancia.

El art. 17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones señala que las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

Desde la perspectiva administrativa, las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos considerados de interés general, e incluso un procedimiento de colaboración entre la Administración pública y los particulares para la gestión de actividades de interés público.

EK\CV GAO-I-2024-02096

Helburua da efikazia eta efizientzia handiagoa lortzeko arau egokiak ezartzea eta, aldi berean, laguntza ekonomiko mota honi izaera publikoak ematen dizkion kontrola eta gardentasuna indartzea.

Bestalde, komenigarria eta beharrezkoa da bere tramitazioan eta justifikazioan irizpide homogeneo batzuk ezartzea, eta, aldi berean, udal departamentuei eta Kontu-hartzailetzari erraztasunak ematea dirulaguntzaren xedea betetzen den frogatzeko egiten dituzten egiaztatze-lanetan.

Udalak onartuta dauka alor hori arautzeko ordenantza orokorra: zarauzko udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea.

Arautegi orokor hori, hala ere, moldatu egin behar da departamentu bakoitzaren helburuetara, bultzatu nahi dituen ekintza zehatzetara, eta horretarako onartzen dira oinarri espezifiko hauek. Horien helburua da norbanakoek eta elkarteek sustatzen dituzten interes orokorreko jarduerak bultzatzea.

Ordenantza honek bere helburuak betetzeko behar-beharrezkoa den erregulazioa besterik ez du, eta oinarri espezifiko hauek ordenantza gisa tramitatuz beste urrats bat eman da segurtasun juridikoan, prozedura gardenagoa eta parte-hartzaileagoa delako eta arautegi honen iraunkortasuna bermatu nahi delako.

Ordenantza hau honako xedapen hauek osatzen dute:

1. *Helburua.*

Oinarri hauen helburua da kirol arloan jarduerak egiten dituzten Zarautzko entitateei, norgehiagoka araubidez, dirulaguntzak emateko prozedura arautzea. Hortaz, artikulu hauen bidez Zarautzko Udaleko Kirol Departamentuak emango duen dirulaguntza arautuko da:

— Kirol klub eta elkarteei dirulaguntzak.

2. *Dirulaguntzak eskatzeko baldintzak.*

Dirulaguntza hauen onuradun izaera izango du dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona juridikoak, edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak.

Oinarri hauetan arautuko dirulaguntzak onuradunak izanik, 3. puntuan ezarritako betebeharrak ere betetzen dituzten pertsona juridikoek eskatu ahal izango dituzte.

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun ezin izango dira izan:

— Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak.

— Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak, jarritakoaren arabera, sexu delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

— Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

— Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

— Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio, lan edo zigor arloko ze-

El objetivo pretendido es establecer las reglas oportunas, con el fin de conseguir una mayor eficacia y eficiencia, potenciando simultáneamente el control y transparencia que el carácter de públicas confiere a este tipo de ayudas económicas.

Por otra parte, es conveniente y necesario establecer criterios homogéneos en su tramitación y justificación y al mismo tiempo, facilitar la tarea de comprobación que hacen los correspondientes departamentos municipales y la propia Intervención para el cumplimiento de la finalidad de la subvención.

El Ayuntamiento ha aprobado la ordenanza general reguladora de esta materia: ordenanza general reguladora de subvenciones del ayuntamiento de Zarautz.

Esta normativa general, sin embargo, debe adecuarse a los objetivos que persigue cada departamento, a las acciones concretas que pretende impulsar, y para ello se aprueban estas bases específicas que pretenden apoyar actuaciones de interés general promovidas por particulares y asociaciones.

La presente ordenanza no tiene más regulación que la estrictamente necesaria para el cumplimiento de sus fines, y la tramitación como ordenanza de estas bases específicas supone dar un paso más en la seguridad jurídica, ya que el procedimiento se sigue de forma más transparente y participativa y se pretende garantizar la estabilidad de esta regulación.

Esta ordenanza se compone de las siguientes disposiciones:

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento de las subvenciones en régimen de concurrencia competitiva a entidades de Zarautz que desarrollen actividades en el ámbito del deporte. A tal fin, se regulará mediante estos artículos las subvenciones que conceda el Departamento de Deportes del Ayuntamiento de Zarautz:

— Subvenciones a clubes y agrupaciones deportivas.

2. *Requisitos para la solicitud de subvenciones.*

Tendrá la consideración de beneficiaria de esta subvención la persona jurídica que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión.

Podrán solicitar las subvenciones reguladas en las presentes bases, las personas jurídicas que siendo consideradas beneficiarias, cumplan además las obligaciones establecidas en el punto número 3.

No podrán obtener la condición de beneficiarias de la subvención regulada en estas bases:

— Las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Personas físicas o jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por delito sexual, de acuerdo a lo establecido por la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio.

— Personas físicas o jurídicas que no cumplen con los requisitos establecidos por la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

— Personas físicas o jurídicas con objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, trayectoria, práctica, organización o estatutos contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres, o que discriminan por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual (artículo 40 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

— Personas físicas y jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por haber vulnerado el dere-

hapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

— Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren bat.

Pertsonek edo erakundeek, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete, onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez daudela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordez herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako aitorpenarenak aurkez daitezke.

Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharretan egunean egoteko betebeharra egiaztatzeko, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Toki-erakundeak berak ziurtagiria emango du, eta espedienteari erantsiko zaio.

Zarauzko Udalak zuzenean egiaztatuko ditu beharrezko datuak sektore publikoko edozein erakundetan. Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu: Interesdunak Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren zerga-betebeharrak betetzen dituen.

Interesdunak egiaztatze horren alde ez balego eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

*3. Onuradunaren betebeharrak.*

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak hauek dira:

* Dirulaguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.

* Dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.

* Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.

* Organo emailearen edo, hala badagokio, erakunde laguntzailearen aurrean betebeharrak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta dirulaguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.

* Hartutako fondoen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.

* Organo emaileak egin beharreko egiaztapen jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen eta kontrol jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.

* Diruz lagundutako jarduerаren zabalkunde ekintzetan, jasoarazi beharko da Zarauzko Udalaren dirulaguntza bidezko lankidetza.

* Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, beti ere euskarari lehentasuna emanda eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira, beti ere

cho a la igualdad y el derecho a no ser discriminado o discriminada por razón de sexo (artículo 40 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

— Alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

La justificación por parte de las personas o entidades de no estar incursos en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación acreditativa, según los casos, y cuando dichos documentos no puedan ser expedidos, podrán ser sustituidos por una declaración responsable otorgada ante una administración pública o notario.

Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Zarautz y como quiera que el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas reconoce el derecho de la ciudadanía a no presentar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración, la propia entidad local emitirá certificación, la cual se incorporará al expediente.

El Ayuntamiento de Zarautz verificará directamente los datos necesarios en cualquier entidad del sector público, para acceder a las ayudas recogidas en las Bases Específicas. Concretamente, realizará las siguientes consultas: Que la persona interesada se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y la Hacienda Foral.

La persona interesada podrá oponerse a dicha acreditación debiendo aportar, en ese caso, los certificados requeridos.

*3. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Son obligaciones de la entidad o persona beneficiaria las siguientes:

* Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

* Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

* Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

* Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

* Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.

* Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

* En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá hacerse constar la colaboración, mediante subvención del Ayuntamiento de Zarautz.

* La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskara o en las dos lenguas oficiales los escritos, anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen en la actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la publicidad, bien sea oral o escrita. En dichos casos siempre se adoptarán medidas para priorizar bien al euskera. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán


EK\CV GAO-I-2024-02096

euskara lehenetsiz. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

* Pertsona edo entitate onuradunak aplikatzekoa zaizkion indarreko araudiak betetzea. Hauen artean, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

* Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera ondorengo baldintzak betetzea:

— Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, diruz laguntzeko programa edo jardueran genero ikuspegia txertatu beharko du.

— Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rolaniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.

— Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.

* Egoitza soziala Zarauzko udalerrian dutenak eta jarduera nagusia bertan garatzen dutenak (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik).

* Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea eta Kirol Erakundeen eta Elkarteen Erregistroan (Eusko Jaurlaritza) inskribatuta egotea.

* Identifikazio Fiskaleko Kodea edukitzea eta zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.

* Gutxienez 25 federatu lizentzia izatea taldeko kiroletan, edo gutxienez 15 federatu lizentzia banakako kirol arloren batean. Baldintza hau ez da bete beharrik izango ondorengo kasu hauetako batean:

— Zarautzen gutxiengoak egiten duen kirol modalitate batean aritzen den kluba bada.

— Emakumeen kirolean aritzen den kluba bada.

— Herri kirolen batean aritzen den kluba bada.

* Ezin izango dituzte dirulaguntzak eskatu, bazkide edo kirolariaren urteko kuota 600,00 eurotik gorakoa duten kirol klubek eta kirol taldeek.

*4. Eskaerak.*

1. Eskaerak zerbitzu telematikoaren bitartez aurkeztu behar dira, dirulaguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan.

2. Dirulaguntzari dagokion deialdian eskatzen diren agiriak:

a) Eskaera orria eta eranskinak behar bezala osatuta.

b) Nortasunaren egiaztagiria (NAN, eraketaren eskriturak –dagokion erregistroan inskribatutakoak–, dagokion erregistroak egindako ziurtagiria, etab.).

c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

d) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badago-

transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales, dando siempre prioridad al euskera. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse al justificar la realización de la actividad subvencionada.

* La persona beneficiaria deberá respetar cuanta normativa vigente le resulte de aplicación. Entre otras el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

* De conformidad con la normativa municipal para impulsar la igualdad entre mujeres y hombres, deberá cumplir las siguientes condiciones:

— Deberá tener en cuenta que las situaciones, condiciones y necesidades de hombres y mujeres son diferentes y en función de ello, deberá integrar la perspectiva de género en el programa o actividad susceptible de subvención.

— Utilizará una comunicación inclusiva y libre de sexismo en toda la documentación, publicidad, imágenes o materiales. Evitará cualquier imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres; y fomentará una imagen que transmita valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, diversidad de roles e identidades de género.

— Garantizará que la actividad, acto o espectáculo subvencionado no tendrá contenidos sexistas ni podrá discriminar por razón de sexo ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual.

* Tener la sede social radicada en el municipio de Zarautz, así como desarrollar su actividad principal en dicho ámbito (excepto modalidades que necesiten espacios singulares no existentes en la ciudad).

* Estar constituidos de acuerdo con la legislación vigente e inscritos en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

* Poseer Código de Identificación Fiscal y estar al día con las obligaciones fiscales y de la Seguridad Social.

* Tener un mínimo de 25 licencias federadas en deportes colectivos, o un número mínimo de 15 licencias federadas en alguna sección de deportes individuales. En los siguientes casos, la condición establecida podrá no ser aplicada:

— Si se trata de un club dedicado a una modalidad deportiva minoritaria en Zarautz.

— Si es un club dedicado al deporte femenino.

— Si es un club dedicado a algún deporte autóctono.

* No podrán optar a las ayudas económicas del apartado de actividades ordinarias los clubes y agrupaciones deportivas cuya cuota anual de socio o de deportista supere los 600,00 euros.

*4. Solicitudes.*

1. Las solicitudes deberán presentarse telemáticamente en el plazo que se establezca en la convocatoria anual de estas subvenciones.

2. Documentación requerida en la convocatoria correspondiente a las subvenciones:

a) Formulario de solicitud y anexos debidamente cumplimentados.

b) Documento acreditativo de la personalidad (DNI, escrituras de constitución inscritas en el registro correspondiente, certificado emitido por el registro correspondiente, etc.).

c) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

d) Testimonio, certificados o, en su caso, declaración responsable de no concurrir en el o la solicitante ninguna causa im-

EK\CV GAO-I-2024-02096

kio, aitorpena, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Eskatzaileak irekitako kontu korronte baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik dirulaguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

3. Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan dirulaguntzarik eskuratu dutenek aski izango dute soilik aurreko ataleko a), d) eta e) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztea.

4. Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

5. Zarauzko Udalak zuzenean egiaztatuko ditu beharrezko datuak sektore publikoko edozein erakundetan. Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu: Interesdunak Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren zerga-betebeharrak betetzen dituen. Interesdunak egiaztatze horren alde ez balego eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

6. Halaber, eskaerak aurkez daitezke urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

7. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

*5. Dirulaguntza emateko prozedura.*

Dirulaguntza hau norgehiagoka araubidez emango da, oinarri hauen eranskinean zehaztutako irizpideekin bat etorriz. Prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den deialdiaren bitartez.

*6. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.*

1. Diruz lagundutako jarduerarako jarritako ekarpen propioa jardueran izandako gainerako gastuen modura egiaztatu beharko da.

2. Oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru sarrerekin edo errekurtsoekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.

*7. Izapidetzea.*

1. Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzeko eskumena honako organo hauek dute:

a) Izapidetzea (instrukzio organoa): Zarauzko Udaleko kirol departamentuko arduraduna.

peditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

e) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre. Este documento sólo será necesario presentarlo cuando se solicite una ayuda por primera vez o hayan variado las circunstancias de la cuenta.

3. Quienes hayan obtenido subvenciones en los años anteriores, en el ámbito de lo regulado en las presentes bases, sólo deberán presentar la documentación señalada en los apartados a), d) y e).

4. En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder de cualquier órgano del Ayuntamiento de Zarautz, quien solicite la subvención podrá acogerse a lo establecido en el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento a que correspondan.

5. El Ayuntamiento de Zarautz verificará directamente los datos necesarios en cualquier entidad del sector público, para acceder a las ayudas recogidas en las Bases Específicas. Concretamente, realizará las siguientes consultas: Que la persona interesada se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y la Hacienda Foral. La persona interesada podrá oponerse a dicha acreditación debiendo aportar, en ese caso, los certificados requeridos.

